

62. a

## EUSKALTZAINDIAK FRANTZIAKO AGINTARIEI ESKATZEN DIE *BREBETA*<sup>1</sup> ETA *BAXOA* AZTERKETAK EUSKARAZ EGITEA ONAR DEZATEN

Frantziako hezkuntza sistemana ari diren ikasleek bi azterketa adierazgarri gainditu behar izaten dituzte. Batetik, *brebeta*, kolegioan hondarreko ikasturtea bukatu ostean eta bertzetik, *baxoa*, hiru urte irauten duen bigarren hezkuntzako zikloa bukatzean, ikasleen ibilbide akademikoa biziki baldintzatzen duen azterketa. Azkena berebizikoa da ikasleentzat, bereziki, goi mailako ikasketak egin nahi dituzten gazteen geroan.

2017. urtera arte, *brebeta* euskaraz egiteko aukera zuten kolegioko ikasleek. Ordutik aitzina, alta, gibelera egin da, zientziak frantsesez ikastera behartu dituzte-eta ikasleak. Bertzalde, Frantziako Hezkuntza Ministerioarekin *baxoa* azterketaren zati bat euskaraz egiteko adostasuna erdietsi bazen ere, adostasun hori bururatzeko urratsik ez da egin. Horiek horrela, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak kezkaz ikus-ten du gertatzen ari dena.

Euskararen Akademiaren aburuz, onartezinak dira, ikasketak euskaraz egiten ari diren ikasleek bi azterketa horiek euskaraz osoki egin ditzaten, Frantziako Administrazioak paratzen dituen trabak eta, ikasleen aukera berdintasuna urraturik, hondarraldian gibelera egin dituen urratsak. Euskaltzaindiaren iritziz, biziki onartezina da jarrera hori, are onartezinago aniztasuna horrenbeste goraipatzen duen eta, estatuek berezko hizkuntzak babesteko xedez, eginahalak egin ditzaten aldarrikatzen duen Europan.

Afera horretan, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Frantziako herri-erakundeei eskatzen die *brebeta* eta *baxoa* azterketak euskaraz egiteko engaiamendua hartu eta hori segurtatzeko baliabideak jarri eta urratsak egin ditzaten. Eta ildo horretako ahaleginak egin daitezen, gutun bana igorriko die Ipar Euskal Herriko erakunde adierazgarrienei, Emmanuel Macron Frantziako presidenteari eta Jean Michel Blanquer Frantziako Hezkuntza ministroari. Era berean, Euskaltzaindia harremannetan jarriko da Frantzian hizkuntza gutxiagotuen eremuan lanean ari diren gainerako akademia eta antolakundeen gaia batera aztertu eta Europako erakundeen aitzinean ekimen bateratuak aitzinatzeko xedez.

Baionan, 2022ko otsailaren 3an

1 2023an Frantziako Gobernuak *Brebeta* euskaraz egitea onartu du.

**62. b**

**L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE, EUSKALTZAININDIA,  
DEMANDE AUX AUTORITES FRANCAISES D'ACCEPTER QUE  
LES ELEVES PUISSENT PASSER LE BREVET DES COLLEGES ET  
LE BACCALAUREAT EN LANGUE BASQUE**

Les élèves du système éducatif français ont deux examens primordiaux à passer dans le cursus général. Le premier examen se déroule à la fin de la classe de troisième pour l'obtention du brevet des collèges et le second examen arrive à la fin du lycée, en classe de terminale avec l'obtention du baccalauréat, diplôme déterminant pour les jeunes et la poursuite de leurs études supérieures.

Si jusqu'en 2017 les collégiens avaient la possibilité de passer le brevet des collèges en langue basque, depuis, la situation s'est détériorée avec l'obligation pour les élèves de troisième d'étudier les sciences en langue française. En ce qui concerne l'examen du baccalauréat, à ce jour, les élèves de terminale ne savent toujours pas s'ils pourront ou non passer une ou plusieurs matières de l'examen en langue basque cette année et ce, malgré les accords allant dans ce sens discutés récemment avec le ministère français de l'éducation nationale. Face à cette situation, la Direction de l'Académie de la langue basque exprime aujourd'hui son inquiétude.

Pour l'Académie de la langue basque il est inacceptable que les élèves qui suivent les cours en basque ne puissent pas ensuite passer leurs examens du brevet des collèges et du baccalauréat en langue basque et ce à cause des multiples obstacles posés par l'administration française. Cette marche arrière est par ailleurs regrettable car elle se fait aux dépens de l'égalité des chances des élèves. Pour Euskaltzaindia, cette attitude est d'autant plus inacceptable au sein d'une Europe qui fait l'éloge de la pluralité et incite les Etats membres à protéger les langues territoriales.

Ainsi, la direction de l'Académie de la langue basque demande aux institutions françaises un réel engagement afin que les élèves aient la possibilité de passer les examens du brevet des collèges et du baccalauréat en langue basque, ainsi que des moyens et des avancées pour l'application de cette mesure dans les établissements. Afin que les efforts aillent dans ce sens, elle enverra un courrier aux principales institutions du Pays Basque Nord, ainsi qu'au président de la république française Emmanuel Macron et au ministre français de l'éducation nationale Jean-Michel

Blanquer. Dans un même temps, l'Académie de la langue basque ira à la rencontre des différentes académies et autres organisations œuvrant en faveur des langues minoritaires en France afin d'étudier ensemble cette problématique et de présenter des actions communes devant les institutions européennes.

À Bayonne, le 3 février 2022.